

**2009ko UZTAILAREN 2an LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN  
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2009ko uztailaren 2an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Xabier Mujika alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez  
Karlos Irazu Muñoa  
*Iñigo Aginalde Lertxundi*

Bere ezin etorria azaltzen du: Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. Ondoren adierazten den Udalbatzarreko akta onestu, hala badagokio:
  - 2009ko ekainaren 4an egindako ohiko bilkura.
2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.
3. Larraulgo Arau Subsidiarioetako 1.1. exekuzio unitateko urbanizazioaren lanak egoki egiteko jarritako bermea itzultzeko eginiko eskaeraren onespena, hala bada.
4. Fakturak eta ordainketak.
5. Beste batzuk.
6. Erregu, galderak eta mozioak.

.../...

**LEHENENGO PUNTUA**

**ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADAGAKIO.**

- ▣ 2009 urteko ekainaren 4ko Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

**BIGARREN PUNTUA**  
**ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Idazkari-kontuhartzaile andreak batzarkideei jakinarazten die Alkate jaunak ez dituela eman ebazpenik azkeneko Udalbatzarretik.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

**HIRUGARREN PUNTUA**  
**LARRAULGO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 1.1. EXEKUZIO UNITATEKO URBANIZAZIOAREN LANAK EGOKI EGITEKO JARRITAKO BERMEA ITZULTZEKO EGINIKO ESKAERAREN ONESPENA, HALA BADA.**

Ikusirik Rafael Ramirez Aramendia jaunak, GESTION Y DESARROLLO GOIARGI S.L. ren izenean, Larraulgo Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 1.1. exekuzio unitateko urbanizazio lanak egoki bermatzeko jarritako 16.489,11 eurotako abalaren itzulera eskaera aurkeztu duela.

Ikusirik 2009ko maiatzaren 7an egindako Udalbatzarrean erabaki zela, Rafael Ramirez Aramendia jaunak eginiko eskaera, jendaurrean jartzea, G.A.O. argitaratuz, eskatzailarengan eskubideren bat izan dezaketen guztiek, erreklamazioak aurkez ditzazten.

Ikusirik 2009ko ekainaren 10eko G.A.O. an argitaratu zela GESTION Y DESARROLLO GOIARGI S.L. baltzuak eskaturiko Larraulgo Arau Subsidiarioetako 1.1. exekuzio unitateko urbanizazio lanak egoki bermatzeko jarri zuen behin betiko abala itzuleraren eskaera, hamabost egunetan jendaurrean egonik inolako erreklamaziorik egon ez delarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Rafael Ramirez Aramendia jaunari, GESTION Y DESARROLLO GOIARGI S.L. ren izenean eskaturiko Larraulgo Arau Subsidiarioetako 1.1. exekuzio unitateko urbanizazio lanak egoki bermatzeko jarri zuen abala, hau da, 16.489,11 eurotako bueltatzea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

**LAUGARREN PUNTUA**  
**FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

SANIPLAST	205,12
MANPEL	101,85
GIPUZKOAKO URAK, S.A.	6.998,63
IBERDROLA	13,54
IBERDROLA	128,03
IBERDROLA	74,94
IBERDROLA	34,15
IBERDROLA	196,75
IBERDROLA	14,28
IBERDROLA	178,64
IBERDROLA	11,10
IBERDROLA	308,90
IBERDROLA	95,78
IBERDROLA	89,18
IBERDROLA	10,02
EUSKALTEL	185,47
TELEFONICA	70,74
TELEFONICA	17,07
TELEFONICA	16,21
TELEFONICA	87,93

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **8.838,33** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

**BOSTGARREN PUNTUA**  
**BESTE BATZUK**

**5.1. AUTORE ETA ARGITARATZAILEEN ELKARTE NAGUSIAK (SGAE)  
AURKEZTURIKO ERREKLAMAZIOAREN AZTERKETA**

*Iñigo Aginalde zinegotzia 20.55 orduetan Udalbatza honetara bertaratzen da.*

Ikusirik SGAEk aurkezturiko idatzia non azaltzen duen Larraulgo Udalak 2007ko martxoaren 14ko 96113432 faktura ordaindu gabe duela, bere zenbatekoa 176 euro direlarik.

Ikusirik SGAEk aurkezturiko idatzian dioela, Larraulgo Udalak aipaturiko faktura ordaintzen ez badu, aurkezturiko idatzia Auzibidera jo aurreko erreklamazio izango dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: SGAEk aurkezturiko idatzia artxibatzea.

**SEIGARREN PUNTUA**  
**ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.55 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA